

JOXERRA GARTZIA

Deskribapena: Kaleko imajinak ageri dira jendea paseoan ikusten delarik eta ondoren, Joxerra Gartzia Kikerekin elkarrizketan kale erdian.

Kike: “Joxerra, eta hau guztia nola landu liteke?”

Joxerra: “Gaur egungo sisteman, edo gizartetan, non entretenimendua denean dagoen, edozein jartzen zaiola, nahi baduzu, persuaditu jendea, nahi baldin baduzu erakarri, haserrarazi, entretenimendu puntu bat bilatu behar duzu. Eta esango nuke konsigna nagusia, ba, zurea esateaz aparte, lortu behar duzu, jendea ez dadin aspertu. Ikasi behar dugu gaiztoagoak izaten, eta ustekabeak ematen eta hori hasten da, lehenengo ba hartu duzun gaiarekin oso txarra da pentsatzea nik asko dakit beraz, egina dago. Ez, ez zuk dakizunarekin, orduan hasten da komunikazioa. Dakizun horrekin, ze egin behar duzu lortu nahi duzuna lortzeko? Orduan, begiratu behar diozu gaiari zazpi mila ikuspegietatik, orduan egin behar duzu atera zaizun hori guztia antolatu modu egokian, eta zer da hori? Ba, denbora guztian pentsatu, eta hemendik hasten banaiz ze pasatzen da? Haserretu egingo da jendea, komeni zait? Bai, batzutan komeni da, ba orduan hortik hasiko naiz. Eta hor bueno, kontatzen da beti txiste bat apaiz erretzaile batek eskatu zuela aber errezatzen ari zen bitartean erre zezakeen, eta ezezkoa esan zioten. Eta hurrena galdetu zun, erretzen ari naizen bitartean erreza dezaket? Eta orduan bai. Zergatik? Ba nundik hasten dan oso diferentea dalako.”

Kike: “Eta era horretako ze bestelako baliabide ditugu?”

Joxerra: “Ba, milaka bat gehio dago, izen arraroak jartzen dizkiote adituek baino zuk jabetu behar duzu, e, gaiari ondo begiratu eta ondo antolatzeaz aparte, gero zenbait tokitan zure diskurtsoak beharko duela formulazio berezi bat, indartsua. Ba, adibide bat jartzeagatik, ez? Zuk esaten badezu, ba, halako mozkortu egin zan, ta zeon, hantxe zeon, hankak zabal-zabal, hiper zabal, mega zabal,... bueno, jendeak sinistuko dizu baino ez diozu barre eragingo. Aldiz, ba Xenpelarrek esan zuena, egin zuena, ez? Hanka bat zeukan Vitorian eta bestea berriz Londresen. Ba, horrek ja kasi ikustarazi iten dizu eta barreguria sortarazten dizu.”